

**2014ko ekainaren 25ko OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA**

**DEIALDIA: LEHENA
HASIERA ORDUA: 20.05
BUKAERA ORDUA: 20.30**

Bertaratutakoak:

- 1.- Jesus Maria Fullaondo Alzibar
- 2.- Leixuri Arrizabalaga Arruza
- 3.- Maite Lekanda Bilbao
- 4.- Vanesa Alvarez Zorrilla.
- 5.- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga
- 6.- Unai Arruza Elorduy.
- 7.- Unai Arrizabalaga
- 8.- Mikel Larrazabal.

Idazkaria: Iker Jaka Arratibel

Ez da etorri baina horretarako abisua eman du:

- Naiara Beldarrain Fullaondo.

1.- Arteko akteen onarpena.

2014ko maiatzaren 28 ohiko osoko bilkuraren akta bertaratuek aho batez onartu dute.

2.- Dekretuak.

2014/64	12/05/2014	G.I.S.eri maiatzaren 27an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/65	13/05/2014	2014ko Udalekuen kontratazioko espediente administratiboa onartzeko.
2014/66	14/05/2014	M.A.P.eri Garai auzoan "baserriaren birregokitze" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/67	14/05/2014	J.R.A.B.ri Garai auzoan "zaldien kortatarako nabe eraikuntza" lanak egiteko lizentzia emoteko.

2014/68	16/05/2014	J.Z.S. jaunari, ekainak 6an egun osorako, txokoa erabiltzeko baimena emonaz
2014/69	22/05/2014	Plangintzako tresnak egiteko dirulaguntza eskakizuna onartzeko.
2014/70	23/05/2014	U.A.A. jaunari maiatzaren 31an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/71	23/05/2014	F.P.T. jaunari ekainaren 6an bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/72	23/05/2014	B.L.C andreaki ekainaren 21ean bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/73	27/05/2014	S.A.Y.E.E., S.L.U.ri Igartua auzoan "negutegi eta igerileku bat eraikuntza" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/74	27/05/2014	U.M.M.eri Gorordo auzoan "etxebizitza eraikuntza" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/75	29/05/2014	Hurrengoko ordainketak onartu dira.
2014/76	30/05/2014	Elena M. Gonzalez idazkariaren finikitua onartzeko.
2014/77	02/06/2014	A.B.B.ri Libero auzoan "etxebizitza berritze" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/78	02/06/2014	J.B.B.ri Lubarrietaondo urbanizazioan "elikadura denda baten obra eta iharduera" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/79	02/06/2014	J.F.A.ri Lubarrietaondo urbanizazioan "etxebizitzako bainuak eta sukaldea berritze" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/80	02/06/2014	N.U. eta J.G.eri Sertutxa auzoan "etxebizitzako bainua berritze" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/81	02/06/2014	J.A.E.I.ri Sertutxa auzoan "muroa konpontze" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/82	05/06/2014	A.O.G jaunari ekainaren 15ean bazkari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/83	09/06/2014	Ezkontza zibil baterako alkatearen delegazioa erabakitzeko.

Ez dute ezer esateko.

3.- Ibaiondo etxetik Artzubi eta Sakoneta baserrietara doan bidearen ikerketa espedientearen hasiera akordioa, hala badagokio.

Alkateak herritar baten eskaerari jarraituz gai hau plenoan sartu dela azaltzen du. Herritarrak bide baten inguruan udalak ikertu daieela eskatzen dau eta hemen erabakitzen dena da ea ikerketa espediente hasi edo ez.

Mikel Larrazabalek, arkitektoak eginiko txostenari erreparatzen dio eta gauza bat ez dekola argi esaten du. Bertan "Camino a incluir en el inventario municipal" bezala bide hau agertzen dela esaten dau. Hori dela eta, galdetzen du ea nondik atara den kontzeptu hau batez ere eurak izan zirenean inbentarioa onartu zutenak eta inbentarioa publikatuta dago eta suposatzen da bertan agertzen ziren bide guztiak inbentariatuta egon behar daudela. Beraz, zer dela eta izen hori "Camino a incluir en el inventario municipal".

Alkateak erantzuten dio inbentarioan agertzen direla bide batzuk etorkizunean bertan sartzeko., hau da, "Caminos a incorporar". Era berean alkateak dio inbentarioa publikatu zenean, agian, ezin izango zirela bide hauek inbentarioan sartu arrazoi batzuegatik eta orduan orain guri dagokiguna dela ikusi ea bide hau udalarena den edo pribatua den eta horretarako ikerketa prozedura hastea bozkatzea erabaki bat hartzeko.

Horiek esanda ondoren hurrengo erabaki proposamena bozkatzen da:

IBAIONDO ETXETIK ARTZUBIKO BASERRIRA DOAN BIDEAREN IKERKETA ESPEDIENTE IREKITZEKO AKORDIOA

Kontuan hartuta Toki Administrazioetako ondasunari buruzko erreglameduaren 45-55 artikulua Gatikako udalbatzarrak hurrengo akordioa onartzen du:

LEHENENGOA. Ibaiondo etxetik Artzubiko Baserrira doan bidea norena den jakiteko expediente irekitzea. Erregistroetan dauden datu eta dokumentazio guztia eskatzea.

BIGARRENA. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu hasiera emoteko akordioa. Udaletxeko iragarki tabloian, 15 egunetan, argitaratzea. Epea amaiturik, hilabeteko epea ematean, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARRENA. Haiserako Akordioa, Estatuko Administrazio Orokorrari eta Euskadiko Administrazioari jakinarazi.

LAUGARRENA. Alegazioak auzteko epea amaitu ondoren, frogak aurkeztu eta egiteko epea irekitzea, 20 eguneko, ukituei jakinaraztea beharrezkotzat hartzen dituzten frogak erakutsi ditsaten. 10 eguneko epean.

Aho batez onartzen da.

Segidan Eskerak eta Galderak atala aztertu beharko litzateke baina Leixurik EAJ-PNVren izenenean eta Vanesak BILDU-ren izenean mozio bat aurkezten dabe bai Juan Carlos I erregearen abdikazioaren inguruan.

Horretaz aparte, mozio bat aurkezten da EAJ-PNV eta BILDUK adostuta Euskal Selektzioaren inguruan. Hasiera batean, BILDUK ESAIT-en mozioa aurkezteko asmoa zuen baina EAJ-az adostu dau ESAIT.-en mozioko 2. puntua EAJ-en moziara atxikitzea eta aldaketa hau egin da mozio bakar bat aurkeztea osoko bilkureara.

2568/1986 Erret Dekretuko, azaroaren 28koa, Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa onartzen duen Erreglamenduaren 91.4 artikularekin bat moziok sartzea bozkatzan da eta haiak sartzea aho batez onartzen dira.

4.- Juan Carlos I Erregearen inguruan moziok.

Vanesak Bilduren mozioa irakurtzen du.

Leixurik, ondoren, eurek aurkeztutako mozioren arrazoiak ematen ditu. Horrela, BILDU-ren moziok agertzen diren gauza batzuekin ados daudela dio baina eurak politika egiteko beste estilo bat dutela ere azpimarratzen du adostasunaren ildotik. Baita ere EAJ alderdia euskalduna eta abertzalea dela esaten du, ordezkariak herriak aukeratu behar dituelaren iritzikoa dena eta ez direla monarkikoak baizik eta errepublikazaleak. Era berean, 1978ko Espainiako Konstituzioa alderdiak ez zuela onartu gogorarazten du eta berrikuntzak egin behar ezkerre Konstituzioan, erregearen abdikazioaren inguruan egin den prozedura aztertuta, EAJ alderdiak nahiko luke Euskadirentzat beste Estatus bat edukitzeko aukera Konstituzioan sartzea.

Arrazoiak aipatuta, gero, euren mozioa irakurtzen du.

Ondoren bozketa momentua iristen da eta hurrengo ematen da.

Bilduren mozioa:

GTI: Aldeko bi boto (Mikel eta Unai Arruza).

Ugutx(GTI). Abstenitu egiten da.

Ugutzek bozkatzeari uko egiten dio. Berari ez zaio gustatzen hemen jarraitzen den sistema zeren eta bipartidista da eta bera ez da joko horretan sartuko. Bera ados dago mozio biekaz eta horregatik abstenituko da.

BILDU: Aldeko botoa

EAJ-PNV: Abstentzioa

Leixurik dio nahiz eta fondoan ados egon; eta abdikazioaren alde ez egon eta errege berriaren alde ez egon Bilduk proposatzen duen bidea da haustura demokratikoarena eta guk horrekin ez gaude ados zeren eta guk adostasunaren bidea bultzatzen dugu.

EAJ-PNVren mozioa:

GTI: Aldeko bi boto (Mikel eta Unai Arruza)

Ugutz(GTI). Abstenitu egiten da. Arrazoiak BILDUren mozioan aipatutako berberak.

Vanesa: EAJen mozioa hankamotza dela dio eta erregearen abdikazioaren inguruan ez dutela ezer esaten. Era berean ez du ulertzen kontramozioa zeren eta berarentzat BILDUren mozioa eta EAJ mozioa ez dira kontrajarriak, ezberdinak baizik. Batak abdikazioaren inguruan berba egiten du eta besteak beste gauza bati buruz.

EAJ. Aldeko lau boto.

Beraz bi mozioak onartu egiten dira.

Idazkariak, onartutako mozioen inguruan , helburu kontrajarriak dituztela ohartarazten die zeren eta batzuk haustura demokratikoaren alde egiten dute eta besteek adostasun bat lortzeko bidean ekimenak eta negoziak babesten dituzte.

5.- Euskal Selektzioaren mozioa.

EAJen jatorrizko mozioari BILDUK hirugarren puntu gisa atxikitutako zatia gehituta osatzen dan mozioaren azkeneko eredu, bertaratuek, aho batez onartzen dute.

6.- Eskaerak eta Galderak.

Leixurik barkamena eskatzen die GTIko zinegotziei mozioen berri ez zitelako eman , eta, horren ondorioz, adostu beharreko testuak negoziatzerako momentuan eurekin ez zutelako kontatu.

20.30ean amaitu egin da osoko bilkura hau.



ALKATEA

IDAZKARIA

ZINEGOTZIAK

Handwritten signatures in blue ink, including several names and a signature that appears to be 'Vanesa'.

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa, Frankismotik eratorritako eredu politiko-instituzionalaren krisi sakonean beste urrats bat gehiago izan da. Kolpe Militar Frankista eman zutenek, beraien jardunaren inolako ardura zein ondorioz nozitu gabe, eta zituzten pribilejio eta botere guneak mantenduz, "lotuta eta ondo lotuta" utzi zuten Estatu botereen etorkizuna. Estatuaren zatiezintasuna aldarrikatuz eta hori hala izan zedin armadari berme funtzioa emanaz itxi zuten erreforma. 1978 ko Konstituzio espainiarra, zeinaren ondorioz Juan Carlos Borboikoa Estatu Buru gisa geratu zen, Euskal Herriak ez zuen onartu. Euskal Herriak uko egin zion konstituzio horri, besteak beste, herri gisa etorkizuna libreki eraikitzeko eskubidea ukatzen zigulako eta benetako haustura demokratikorik ez emateaz gain, Hego Euskal Herria bi eremu administratibotan zatitzen zuelako. Frankismoaren amaieratik eratorritako eredu politiko-instituzional espainiarrak, demokrazia eza, gure herriaren ukazioa eta diktadura frankistarekiko haustura demokratiko eza ordezkaten ditu.

Eredu politiko hori ordea, ez da gai izan Espainiako estatuaren menpeko herrien zein Estatuko herritarren aldarrikapen demokratikoak geldiarazteko. Gero eta nabarmenagoak eta indartsuagoak dira, estatu espainiarreko nazioek beraien etorkizunaren jabe izateko egindako aldarrikapenak. Atzeraezinezko prozesuak ari dira eraikitzen. Herriak, herritarrak eta eskubide demokratikoak protagonista diren prozesuak hain zuzen ere. Bitartean, eredu politiko-instituzional honen krisiaren adierazle argia da, PP eta PSOEek, eta ordezkatu duten bipartidismoaren zilegitasun eta sinesgarritasun krisia.

Testuinguru horretan eman da Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioa. Eta egoera honen aurrean, bistan da, ukazioan eraikitako eta politikoki agortutako marko politiko eta juridiko honi iraunarazteko itxuraldaketa operazio baten aurrean gaudela. Juan Carlos Borboikoaren abdikazioak ordea, ez dakar aldaketarik bere baitan: herrien ukazioan oinarrituriko eredu politiko-instituzionala ez baita gainditu.

Erreforma inposatu zenean irekita zeuden gatazka politiko guztiak bere baitan mantentzen dira eta Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioarekin batera, 1977an abian jarritako Frankismoaren Erreformaren fasea amaitzea beharrezkoa da. Hori da herri honen aldarrikapena. Abdikazioaren aurrean, benetako haustura demokratikoa emateko unea da. Herrien eta herritarren eskubideak gauzatu ahal izateko. Espainiako herritarrek beraien sistema politikoa erabakitzeo erreferendum-a egitearen alde gaude. Baina Euskal Herria ez da eztabaida horren subjektua. Euskal Herritarrok gure erabakiak geuk hartzeko dugun eskubidearen errespetua aldarrikatzen dugu, etorkizunean libreki gure egitura politikoa eraiki ahal izateko. Herriok dugun erabakitzeo eskubidearen gauzapena nola egingo den erabakitzeo unea da.

Horren guztiaren aurrean, Gatikako Udalak honako adierazpen hau onartzen du:

Juan Carlos Borboikoaren Abdikazioaren aurrean, Gatikako Udalak benetako haustura demokratiko baten aldeko aldarrikapena egiten du, Euskal Herritarrok gure herriaren etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatuz. Era berean, herri honek ez dio inolako zilegitasunik onartzen espainiako Koroaren inongo ordezkariari.

Bizi dugun egoera politikoaren aurrean, gure herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidea eskuratzeko helburuarekin lan egiteko deialdia luzatu nahi diegu Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu, eragile eta herritarrei.

Euskal Herrian, 2014ko ekainean

EAJ-PNV udal taldearen mozioa abdikazioaren mozioen inguruan.

Gatikako Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio konstituzioaren erreforma prozesua abian jar dezala, zeinen bidez Estatuko nazionalitate ezberdin Espainiar Estatuarekin nahi duten harreman mota askatasun osoz erabakitzeke aukera izango duten, hau da, abikimendua, banaketa edo bitarteko beste formulak; edozein kasutan, nazionalitate horiei abxikitutako lurraldeetako hiritarren borondatearen adierazpen zuzenaren bidez gauzatzeko direnak, beti ere.

Moción alternativa de EAJ-PNV ante las mociones sobre abdicación.

El Ayuntamiento de Gatika solicita al Gobierno del Estado que inicie un proceso de reforma constitucional para habilitar un proceso en el que las diferentes nacionalidades del Estado, puedan elegir libremente la relación a mantener con el estado español, ya sea de adhesión, separación u otras fórmulas intermedias que culmine con la expresión directa de la voluntad ciudadana de los territorios vinculados a dichas nacionalidades.

EUSKAL SELEKZIOEN NAZIOARTEKO OFIZIALTASUNARI BURUZKO MOZIO INSTITUZIONALA

Zioa,

Eusko Jaurkitzailearen Gobernantza Demokratikoaren Institutuari (Gobernantza) eskatu dio Euskal Kirol federazioek euskal kirol federatua ordezkatzearen bideragarritasun juridikoari buruzko txostena egitea. Txosten hau legegari adituen talde batek egin du, eta iragan apirilaren 10ean aurkeztu zen jendaurrean, Euskal Kirol Federazioen Elkartearekin batera antolatutako jardunaldian, jardunaldi horretan euskal kirolaren erakunde eta eragilerik esanguratsuenek parte hartu baitzuten.

Txosten horren ondorioen azalpenak ikusita, honako hauek esan daitezke:

1. Ez dago eragozpen juridikorik Estaturik gabeko nazio edo lurraldeetako federazioek nazioarteko federazioen parte izan daitezen eta lehiaketa ofizialetan parte har dezaten. Hau da, Espainiako, Europako edo nazioarteko ordenamendu juridikoan ez dago euskal federazioen proekzio edo dimensio internazionala debekatu edo eragoztiko duen aginduzko araurik.
2. Kontu ez dago, beraz, ezintasun juridikoan, baizik eta borondatean, eta hiru dira honen inguruan batu behar diren borondateak:
 - a) Euskal kirol federazioen aldetik, integrazioa eskatzeko borondatea.
 - b) Espainiako federazioen eta beren administrazio tutoreen borondatea, integrazio hori ahalbidetzekoa edo ez eragoztekoa.
 - c) Nazioarteko federazioen borondatea, beren araudian baldintza egokiak jasotzekoa eta, ondoren, integrazteko eskariak onartzeko.

Ondorioz, atxikipen eskariari uko egingo balitz, eta, arestian azaldutakoaren arabera, ez litzateke inolako eragozpen juridikoagatik izango, TAS (Kirolen Arbitraje-Auzitegia) delakoaren aurrean errekurtsoa jartzeko bidea aztertze aukera dago, eta, baita ere, eztabaida juridikoa planteatu daiteke Europako erakundearen aurrean (Europako Batzarre eta Luxenburgoko Epaitegiaren aurrean edo Europako Legebiltzarraren aurrean), nazioarteko kirol lehiaketetan parte hartze mugatze hori (kasu honetan Europaren mailan, EB osatzen duten 28 estatuetan) EBko tratatu eta hitzarmenetan aurreikusten diren askatasunen kontrako ote den argitzearen.

Azaldutako horregatik guztiagatik, Gatikako Udalak aho batez hurrengo hauek onartzen ditu:

AKORDIOAK:

Lehena: Gatikako Udal Korporazioaren babesa adieraztea euskal selekzioen nazioarteko ofizialtasunaren aldeko aldarriari.

MOCIÓN INSTITUCIONAL RELATIVA A LA OFICIALIDAD INTERNACIONAL DE LAS SELECCIONES DEPORTIVAS VASCAS.

Justificación,

El Gobierno Vasco ha encargado al Instituto de Gobernanza Democrática (Gobernantza) la elaboración de un informe sobre la viabilidad jurídica de la representación internacional del Deporte Federado Vasco por parte de las propias Federaciones Deportivas Vascas. El informe ha sido realizado por un equipo de expertos juristas y se ha hecho público el pasado 10 de abril en una jornada organizada a tal efecto con la colaboración de la Unión de Federaciones Deportivas Vascas y la participación de las entidades y agentes más representativas del deporte vasco.

De las explicaciones de sus conclusiones se desprende que:

1. No existe imposibilidad jurídica para que las federaciones de naciones o territorios sin Estado formen parte de las federaciones internacionales y participen en sus competiciones oficiales. Es decir, no existe una norma imperativa en el ordenamiento jurídico español, ni en el europeo ni en el internacional, que prohíba o imposibilite la proyección y dimensión internacional oficial de las Federaciones Vascas.
2. No es, por lo tanto, un problema de imposibilidad jurídica, sino un problema de voluntades, siendo necesario que ese aumen tres de ellas:
 - a) La de las propias federaciones vascas de solicitar la integración.
 - b) La de las federaciones españolas y su administración de tutela de propiciar o no impedir esa integración.
 - c) La de las federaciones internacionales de recoger en su Normativa uno requisitos adecuados y, posteriormente, aceptar las solicitudes de integración.

En consecuencia en caso de materializarse la negativa a una solicitud de adscripción -que tal y como se ha dicho no obedecería a ningún impedimento jurídico- cabe explorar la vía del recurso ante el TAS (Tribunal Arbitral del Deporte) e incluso plantear ante las instituciones europeas (Comisión europea y Tribunal de Luxemburgo, o ante el parlamento europeo) el debate jurídico en torno a si tal limitación o restricción para la participación en eventos deportivos internacionales (en este caso, a nivel europeo, de los 28 estados de la UE) resulta contraria a las libertades previstas en los Tratados de la UE.

Por todo lo expuesto, el Ayuntamiento de Gatika por unanimidad aprueba los siguientes acuerdos:

ACUERDOS:

Primero: Manifestar el apoyo de la corporación municipal de Gatika a la reivindicación de la oficialidad internacional de las federaciones deportivas vascas.

Bigarrena: Aurrera eraman nahi den neurrian saiatzeak merezi duenez, euskal federazioak animatzea nazioarteko ofizialtasuna lortzeko bide juridikoak azertzer eta agortzer, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

Hirugarrena: Eta hori ahalbideratu ahal izateko, GATIKAKO UDALAK, Espainiako Futbol Federazioari Euskal Selektzioari ezarritako betoa kendu eta nazioarteko txapelketetan parte hartzea ahalbidera diezaiola eskatzen dio.

Segundo: Convencidos de que en la medida en que se desee llevar adelante, merece la pena intentarlo, animar a las federaciones vascas a explorar y agotar las vías jurídicas para lograr la oficialidad internacional con la ayuda del Gobierno Vasco.

Tercero: Y para hacer eso posible, EL AYUNTAMIENTO DE GATIKA, solicita a la Federación Española de Fútbol que retire el veto impuesto a la Selección Vasca y haga posible la participación de esta última en las competiciones internacionales.